

# Aberriak min, olerkiak oinaze

Angel LERTXUNDI

## Atarikoa

Hamazazpi urte zituen Salvatore Mitxelenak Espainiako Gerra (*anaiartekoa* dio berak beti) hasi zenean. Handik hilabete gutxira soldadu ikusiko dugu *zuriekin* (nazionalekin, alegia). Eugenio Agirretxek, haren fraide lagun eta ikaskideak, dio:

“Gehienok gerran sartuta ibilli beharra izan ginukan. Zurien aldean egokitu eta horien zerbitzuan sarreraziak. Nola edo hala, batzuk fusilarekin gudukatzen, besteok han-hemengo lan bigunagoetan, hor pasa genetxezkin gerrako urteak xeblere asko. Ez pralle, ez soldadu, ez ikasi, ez jator jolastu, ez bide argirik aurkitzen...”

Argibide gutxi ditugu Salvatore soldaduaeren nondik norakoaz: Nafarroa aldean ibilli zela, Iruñean batez ere; beste ezer gutxi. Fraide gaztearen bihotzean gerrak eragindako zauriez, deus ez. Ez dago, ordea, ahalegin handirik egin beharrik fraidegal haren tragedia eta bihotzaren urratua imajinatze aldera: gizaki, abere moduan; fraide, baina gerran; euskaldun, euskaraz egin ezinez; integristen familiakoa izaki, oso gaztetan abertzaletua, (“gaztetxo ginela, gure bihotza abertzaletasun erromantiko batera osorik ukan itzuli”, dio Eugenio Agirretxek), frankistekin gurutzada egiten...

Osagal guztiak ditu Salvatore Mitxelenaren tragediak, bere be-launaldiko beste hainbatenak bezala, giza kondizioaren sotoetaraino jaisteko.

## Aberriak min dit

Gerratik itzuleran, erromantikotasun guztia galdua du Salvatoreren eta haren lagunen abertzaletasunak. Arantzazun Teologia Ikasten ari zela, bere poesia osoaren ardatz nagusia adierazten duen lanaren idazketari ekin zion: "Aberriak min dit". Poemagintza horrek, Lizardiaren "Biotzean min dut" gogorarazten duen izenburutik hasita, aberriaren galerak sorrarazten dion mina olerkiz ere minez ematea du leitmotiv zuzena. Aberriaren mina eta olerkigintzaren mina, alegia. Blak uztartuta.

Lehenari dagokionez, aberriaren minari alegia, dietario moduko bat da liburua: poetak aberriarekiko dituen bizi-sentipenak ageri dira, dataz data, bertan. 1937. urtekoa du lehendabiziko testuak data, eta bertan Mitxelena guztiz etsita ageri zaigu:

"Adixkide: baliteke Euskera iltzea, baina ez erostarik gabe...".

Euskararen agoniari buruzko etsipenari gerrak utzitako hondamendia erantsi behar zaio. Lauaxetaren fusilamenduari buruz idazten duen "Gorputz dago gudaria" poema da horren adierazgarri nagusi. 1939 data darama poemak, Lauaxetaren fusilamendua baino bi urte geroagokoa.

Hasierako etsipen hori, ordea, itxaropen bihurtzen hasten da dietarioa aurrera doan neurrian. Gauza jakina da Espainiako gerraren ondoren, abertzaleen esperantza guztia aliatuen garaipenean jarrita zegoela. Esperantza hori ageri du Salvatore Mitxelenak ere liburua-  
ren erdi aldera:

"Ingalaterrak eta garaipidea artu dutenetik, baletz uste degu. Ala biz. Jaungoikoak nai baldu —zion A. Kardaberaz beneragarriak—, Jaungoikoak nahi du Euskalerrriak burua jasotzea...!"

Beste toki batean Churchill ere alpatzen du, Mitxelenaren itxaropen horrek izen-abizen politikokoak baitzituen, aliatuen izen-abizenak. Tunel beltz batetik irteten ari denaren itxura hartzen hasten da Mitxelenaren poemagintza. Hala dio Mitxelenak 1942. urtean idatzitako "Itxaropena" poemaren atarikoak:

"1942garren urtea zubi bat bezela degu; ori lgaro ezkeru, gurenda! Churchilllek, urte orren asieran, agindua."

Itxaropen horrek irudi bat du abiapuntu: hilda zegoela usten

nuen herria, hilda baino, lotan zegoen. Hori adierazteko, Antonio Arruti zarauztarraren olerki bat ballatzen du Mitxelenak, askotan egiten zuen moduan ballatu ere,<sup>1</sup> "Aberriak min dit" poema abalarazteko. Aski du Arrutiren poeman (Etzegon illa, etzegon illa / lotan zegoen sortitza...) sorkuntza poetikoari buruzko alpamena (sortitza) trukatzea une horretako bere leitmotiv poetiko nagusiaren berri emateko:

Etzegon illa, etzegon illa, / Lotan zegoan erria.

Usteak, ordea, ustelaren kiratsa izan: alliatuek, gurendaren ondoren ere, bizkarra erakutsiko digute; ez dute ez Franco botako, ez estutuko; ez da euskaldunok eta gerra galdu zuten espainiarrek espero zuten miraririk gertatuko. Uste ez zen bidetik sendotuko ditu frankismoak bere sustraiak. Horren guztiaren aurrean, "Euskal guruzbidearen luzeal" egingo du lantu Salvatore Mitxelenak. Ordu arteko historiaz ari da poeta, baina baita etorkizunaz ere: badirudi aurreikusiten ari dela frankismoaren iraupena.

Gerra baino lehen idatziak zituen poema bukolikoak, salo jostari-nak, erotismo erdi itzali erdi nerabea erakusten zuten piezatxoak. Orditik, ordea, gal bakarra jorratuko du Salvatore Mitxelenak: bihotza eta lana etsipenezko oinazez gainezkatuko dituen Gogota mendiranzko ibilbide aldapatsua kantatzeari ekingo dio; bakar-bakarrik egin beharreko Via Crucis oinazetsua otoitz bihurtzeari. Salvatore Mitxelena erromes doa aldapan gora, Euskal Herria ere bezala, Jaungoikoaren magalean bakarrik aurki dezakeen salbazioaren bila.

Logika guztien kontrako bidea gure literaturarena: Berpizkundeko euforia ahogozatu eta gero, etsipenezko ozipina irentsi beharko

(1) Besteren lanen erabilera: Alta Arrutirekin egin bezala, Gernikako Arbola edo Alostorrea poemekin, kopia zaharrekin:

Zeruan eder lizarra,

Zenbat bide emendik ara.

Edo Lizardirekin egiten duena:

"Eguzkirik ez dute lelotan zapiak", eta "asaba zarren baratza" Lizardik.

"Euzkirik ez du mendi gañeko asaba zarren gurutzak", Salvatore Mitxelenak.

*Arantzazu*, euskal poema deiturikoan, berriz, emakume bati jasotako kopia

bat berera ekartzen duelarik, oin-ohar bat dakar kopia originalarekin eta

koplaren azpian, desenkusa: "Aitortzen duanari zilllegi bekio oinbesteko aldaketa."

dugu noiz bukatuko den —edo bukatuko ere den— ez dakigun guruzbidearen luzean. “Bihotzean min dut” esatetik, “Aberriak min dit” esatera pasatu gara. Adornoren esaldi famatua Salbatorerengana ekarriz: analarteko gerraren ondoren, guruzbidea kantatu behar du, ezer kantatzekotan, poeslak.

### Ekatzan eskua

Hamartsu urte lehenago, BERPIZKUNDE garaian, Lizardik eskua luzatu zion aberriaren ahots eztiari *Eusko bidaztiarena* poema itxaropenez betean: Aberriaren abots eztiā,/ gogamenaren ezkon xuria: / ekatzan esku guria, atorkit geldi-geldia, / uztagun, aldikoz, /Euskalerria.

Orain Mitxelenak oinazeari luzatzen dio eskua, Eusko Bidaztiarena ez bezalako bidala, guruzbidearena alegia, egiteko:

Bidelagun oñaze:  
Ekatzan eskua,  
Naraman Jesugana  
Gurutzez lortua.

Euskaltasunaren panorama osoa aldatu da Lizardik eusko bidazti guztiz baikorra amets-bideetan barna ibiltzen jarri zuenetik. Amets-bide hura guruzbide bilakatu zailo Euskalerrinari. Begi-bistakoa da Salbatore Mitxelenak egiten duen paralelismoa Euskal Herriaren ibilbidearen eta Jesusek Kalbario mendirantz sufritutakoaren artean: epalketa, gurutzea bizkarrean, aldapa, erorikoak, jendearen isekak... Begi-bistakoak dira Iruditeria-soka horretatik atera litezkeen antzak eta ondorioak ere.<sup>2</sup>

---

(2) *Confixus*: Oratorio gisa tajaturiko *Confixus* poema-antzekizunean ere Salbatore Mitxelenak guruzbidearen galari ekiten dio berriro. Apaiz bat Via-Crucis bat zuzentzen ari da herriko elizan, bere herriko eliztarren aurrean. Kazetari yanki bat ere han da: Euskal Herrian gertatzen ari denaz dauden bi ikuspegi guztiz kontrajarrien gatazkak eraman du kazetaria haraino: haren ustez, Euskal Herriaren alde esaten den guztia (Gernikaren suntsiketaz, euskal gudari eta apaizen gartzelatze eta fusilamenduaz, euskarari egiten zailon pertsekuzioaz...) interesatua eta puztua da. Apaizak, Guruzbidean zehar, Euskal Herriak sufritu dituen hainbat atsekaberen berri ematen du,

Orain, ordea, beste kontu batzuetara ekarri nahi nuke arreta. Paradoxikoa bada ere, Unamuno dute Lizardik zein Mitxelenak go-goan, batak *Eusko-bidaztiarena* eta besteak *Guruzbidea* idaztera-koan. Lizardik Unamunori eskaintzen dio bere poemarik helduena, ironiaz eskaini ere: "Unamunotar Mikel yaun argiari, gure ausardi gorriaz yabetu dedin".

Mitxelenaren *Guruzbidea* izeneko atalak, berriz, inolako asmo ironikorik gabeko Miguel Unamunoren testu bat du atariko:

eta Guruzbidean parte hartzen ari diren herritarrak dira sufrimendu horien lekuko. Halako batean, polizia frankista eszenan agertzen da eta eztabaidan hasten da apaizarekin, Guruzbidea bertan behera utz dezan. Elizkizunean dauden eliztarren arteko bik halako atsekabeen zerrrenda bat aurkeztuko dute, apaiza eta polizia eztabaidan ari diren bitartean:

Zaldun leenengoak: Kendu fueroak eta berentzat fuero zale izena.

Bigarrenak: Ala Esparterok Bergaran: "Esta espada que ha luchado contra vosotros no será desenvainada si no es para defender vuestros fueros".

Leenengoak: Kendu euskera eskoletatik, elizetatik, banduetatik, bataio izenetatik, umeen dotriñetik, baita kanposantuetako illarrietatik ere...

Bigarrenak: Ta gero: "Vaskongaduok vaskongadu bear duzute izan".

Leenengoak: Malte omen gaituzte!

Bigarrenak: Otsoak arkumea bezela. Guri ardlarrua kenduta berek jazteralño.

Leenengoak: Kendu Unibersidade bat badare gurean izateko eskubidea.

Bigarrenak: Ta gero: "Kultura, zibilizazioa, dakarkizutegu basatiarroi".

Leenengoak: Gernika zalea genduan gure solñeko nabarmenena. Kendu orixe ere ta berentzat artu.

Bigarrenak: "Los que destruyeron Guernica no tienen derecho a hablar de Patria".

Leenengoak: Kendu, galerazi Guruzbidea ere. Ez dugu zillegi geure Miña zeruari aldatzerik. Aldatzekotan, ez geurea, besterena, etsaiarena.

Oratorioaren azken partean, kazetariak, entzun eta ikusi duenarekin lur jota, Euskal Herriaren benetako egoera jakinaraztearen aldeko ahalegin guztiak egingo dituela agintzen du. Kazetariaren ustetan, hiri baten suntsiketagatik negar egitea bezain garrantzitsua da egleri bidea egiten laguntzea, horixe baitzen Euskal Herriaren tragediarik bikainena: ezin zuen bere ahotsa entzunarazi, eta kill-kolo gelditzen zen Demostenesen alegato famatua (ezin da aginte iraungarririk eraiki bidegabekeraren, gaizkiaren eta gezurraren bide-tik), uste baino askoz ere gehiago irauten ari baitzen frankismoa, eta uste baino gehiago luzatzen indarrez erauntsitako legalitate demokratikoaren itzulerara.

“Un Miserere cantado en común por una muchedumbre azotada del destino vale tanto como una filosofía”.

Filosofia batek baino gehiago balio duen lantuzko kantu bat, taldean kantatua, eskaini nahi izan zigun Salvatore Mitxelenak:

O Euskalerrri, gure Euskalerrri,  
milla bider txit gajua,  
amiltegitik amiltegitira  
obraiño irauldua:  
ez Gernika'rik, ez euskerarik,  
gaiñera izena iraindua...  
ez izan nunbait zu bezelako  
ondraduentzat mundual

*Bizi nai* liburuan ageri den oihu hori da Mitxelenak bizi duen minaren muina. Lantu hori, ordea, taldean kantatzekoa da: errealitate gordinak, *gure Euskalerrria* amildegitik amildegira eraman duen historia hurbilak bezala azken bi mendetakoak, nitasun poetikoa isilarazi eta disolbatu du. *Gure Euskalerrria milla bider txit gajua* da Salvatore Mitxelenaren gai poetikoa, eta sintagma horretan laburbildurik daude bere kezka poetikoen lau ardatzak: *gure*, edo sentimendu kolektiboa; *Euskalerrria*, edo sentimendu kolektibo horrek babes-tu nahi eta ezin duen altxorra; *milla bider*, edo talaia historikotik begiratutako egoera tamala; *txit gajua*, edo herriaren oinazea.

*Gure* aldarrikatzen dena, taldean kantatzekoa da; ezin, ordea, poezko edo garaipenezko ezer kantatu taldean. “Zein ederra dan olerkaritza biotzak min duanean, zein ederra dan olerkaritza otol blurtzen danean”, dio poetak ama hilaz ari delarik.

Hilzorian dagoen herri bati buruzko otoitz oinazetua da Salvatore Mitxelenak besteekin batera kantatu nahi duena; Jainkozko kontsolamendua eman nahi dio poetak porrota eta oinazea beste ondasunik ez duen euskaldungoari. Nik zuri zuzentzen dizudan otoitza, guk zuri zuzentzen dizuguna bilaka dadila. Xabier Letek-eta baino askoz ere lehenago bizi izan zuen Salvatore Mitxelenak berak asmatutako kantuak herriaren ahotan herriarenak balira bezala entzutearen poza.

Salvatore Mitxelenaren poesia interpelaziozkoa da, apelaziozkoa; bigarren pertsona bati egiten zalon oihua da, inori kontuak eskatzeko

balno, babesa eskatzeko bideratua: euskaldunen bihotz hunkituek hunki dezatela Jaungoikoarena.

Mitxelenari ezinezkoa zailo oinazeari lhes egitea, ikusten eta sufritzen duenari bizkarra erakustea. Eta egoera horrek ezinbestekoa du honako ondorioa: Mitxelena ez dago barneko oihuak pitxi ederrekin isilarazteko, zauriak joko poetiko formalen ukenduz leuntzeko.

Ez dio Lizardik balio, ez dio hurbil-hurbiletik ezagutzen duen Garzilasoren mendeurrenaren itzalpean —eta aitzaklapean— Espainian egiten den gerra-ondoko poesia liriko ukendu zale eta amnesikoak ere balio. Barne-deiadarrek isiltzeko poesia formalistaren eta ederzalearen joerari uko eginik, beste bide bat hartzen du Salvatore Mitxelenak. Ulertzekoa da, gerraren lurrikarak irauli egin baitu Euskal Herriko poesia bezala Espainiako olerkigintza interesgarriena ere.<sup>3</sup>

### Mitxelena kokatzen

Berpizkunde garaiko poesian Jaungoikoari egiten zitzaizkion deiak topikoak ziren: mundua ordenatzen duen eta zuzen gobernatzen duen izakia da Jaungoikoa, eguzkiarena edo udaberriarena bezain naturazko existentzia duena. Ez dago tentsiorik poetaren eta Jaungoikoaren artean: mundua, txikikeria batzuk gorabehera, ondo egina dago. Gerra ondoren, ordea, etengabea izango da Jaungoikoari egiten zalon deia. Etengabea eta tentsioz betea, la kontuak eskatzerainokoa: zergatik baztertu gaitu zuk sortutako munduak, zergatik utzi gaituzu umezurtz?

(3) Los hijos de la ira: Dámaso Alonsoren "Los hijos de la ira" (1945) poema-bildumak sekulako lurrikara eragin zuen Espainiako olerkigintzan. "Para expresarme en libertad necesité la terrible sacudida de la guerra española", dio poeta espainiarrak. Aztertzeokoa dira orduko Espainiako poesiaren —batez ere, *tremendismo* deitu izen den jokabide poetikoaren— eta Salvatore Mitxelenaren artean. Gerrak poesian eragindako lurrikara, bi-blek Jainkoari egiten dioten Interpelazioa; poesia intimistari eta preziosistari uko egitea; erabilera poetiko herrikoien garrantzia...

Horri guztiari eransten bazaio Salvatore Mitxelenaren "Herri bat guruzbidean" antzezenak asko gogorazten duela Dámaso Alonsok Irratirako Idatzi zuen Jesusen Pasioari buruzko auto bat (Aquel día en Jerusalén), motiboak daukela iruditzen zait bide horretatik saiatzeko.

Mundua gaizki egina dago, burutik jota, horra. Euskal Herriak bezala, Europak ere agonia bizi du. Nonahi ikus daitezke gerraren hondamendiak; batez ere, jendearen bihotzetan. Ez dago babesik hemengo gauzetan, heldulekurik gabe gaude eta goian —Arantzazun, Jainkoarenean— bilatu behar dira. Etxean, anaiarteko gerra baten arrasto nabarmenak: gorrotoa, erbestea, kartzela, euskararen hondamendia; munduan, inoiz espero ez zen bezalako gerra batek odolez blaituak ditu bazterrak. Munduak burua galdu baldin badu eta hemen ez badago heldulekurik, nora luza dezakegu eskua?

Espainiako poesian antzeko egoera bat gertatu zen, Dámaso Alonsok ordezkatzan duen *Tremendismo* izenez ezagutzen dugun jokabide poetikoa. Emilio Alarcosek dio, Blas de Oterori buruzko saio batean gerra ondoko Espainiako poesiaz ari delarik:

“El poeta nuevo de la década de los cuarenta habita un planeta desquiciado, por lo que el poeta busca realidades más altas e intemporales que le sostengan y le guíen. Si es creyente, posee ya estos seguros cables y se recoge al amparo de lo celeste; si la creencia le falta, la añora o la inventa o la sueña, y viviendo de este sueño hace de la necesidad virtud, y al Señor —si inventado no importa— se dirige pidiendo refugio y repaire de los vientos alborotados del mundo.”

“Si inventado, no importa” hori kenduta, Salvatore Mitxelena-rengatik ere esan daitezkeen hitzak dira. Nondik atera etsipenaren kontra behar den kemena, nondik ekin esperantza izateko ezinari, nola eraman tragediak aballdutako existentzia? Existenzialismotik, erantzungo du Europako literaturak: esentziaren eta zerizanaren hausnarketari baino, existentziarenari garrantzia emanda, alegia. Errealismo sozialetik, erantzungo du gizarte sufrituarenganako elkartasuna ardatz hartzen duen poesiak. Salvatore Mitxelena ez dago urruti ez batetik, ez bestetik, ez sentiberatasunez eta ezta bere estetikari dagokionean ere. Hain zuzen ere, estimutan ditu Espainian bi korronte horien aitzindariak, Unamuno eta Blas de Otero, Euskal Herrikoak diak.

Baina bataren zein bestearen atarian gelditzen da Salvatore Mitxelena: erlijioak eman dezakeen kontsolamenduan eta kontsolamendutik bilatzen du etsipenari aurka egiteko bidea. Ez du beste pausorik ematen, ez zaigu fraide-jantziak eta sinesmenak behartuta-



ko eskematik ateratzen: gaizki dabilen mundua Jainkoak bakarrik zuzen lezake, ez literaturak. Salvatore Mitxelenak kezka bakarra du:<sup>4</sup> Jainkoari zuzentzen dion oihu latz horretan ba ote dago biraorik, zuzena ote da deliadar hori ortodoxiaren ikuspegitik?<sup>5</sup>

## Bizitzaren sentimendu tragikoaz

Koldo Izagirrek dio *Poesia kaierak* bilduman Salvatore Mitxelena-ri eskainitako alearen atarian:

“Gerraondoko gure lehen idazlea da, baina are gehiago dugu gerra horren ondorio eta emaitza. Ezin du sortu heriopsikosian baino, bizi nahi duen hiltzera kondenaturiko herriarekin bat egirik.”

Koldok arrazoi du neurri batean: Salvatoreren poemagintza ez zen ezagutzen duguna izango gerrarik gabe. Baina gerrak, ukatu ezin den garrantzia izanda ere, ez du dena argitzen.

Sufrimendua eta poesia elkarturik daude Mitxelenarengan. Sufrimendua idazten du eta sufrimendua adierazteko idazten du. Poz, itxaropen, optimismo gutxi dago bai Mitxelenaren bizitzan, bai haren poesia, irudi, metafora, ideia, pentsamenduetan. “Oinaze” eta “Min” dira haren hitz erabilienetakoak. Gerrak sortarazitako oinazea da, neurri handi batean, Mitxelenaren mina, esana dago, baina baita bere izae-

(4) Nazional katolizismoa: Nazio baten porrota eta beste baten garaipena beste deus ez dago Salvatore Mitxelenak islatzen duen euskal nazional katolizismoaren eta Espainiakoaren artean. Jokabide hori “orain onhar ez dezakegun erligio eta politikaren arteko nahaste-borraste” halakotzat jotzen du Karmelo Iturriak, Salvatoreren adiskide minak. Labaienek, berriz: “Erljiota abertzale naasketa ori, gortxo.”

(5) Ez eliz balmenik gabe: 1956.an Erromako Sancto Officio Kongragazioak liburu debekatuen indizean sartu zituen Unamunoren bi liburu nagusi: “Del sentimiento trágico de la vida” eta “La agonía del cristianismo”. Salvatore Mitxelenak kezka izan zituen Unamunoren antzeko bideetatik ote zebilen “Unamuno eta Abendats” saloarekin. Horregatik, ohar batean dio: “Ni nirez etsi ere naiz, 1955an idatziriko liburu au badaezpadan ez azaltzera. Irakurri didaten apaizek ordea baietz eta baietz Jainkoaren izenean. Nolanal, azalduko bailitz, ez da izango elizbalmen gabe”.

ra pesimistak sortua ere. 1935. urtean idatzitako "Oñaze gauean" poeman oinazea eta zeruaren itxaropena uztartzen ditu:

O gau gurgarria  
Oñazearenal,  
Diz diz dugunean  
Zeru itxaropena.

Ez ditu hamasei urte besterik honako hau ere idazten duenean:<sup>6</sup>

Datozela naiz arantz ta naiz neke.  
Arrats onen malkuok, bein goizalde,  
Intz gozo biurtuko bai dirade.

Emozio guztiak modu eraginkorrean bizi dituelako idazten du poetak bere emozioei inolako bridarik jarri gabe. Antza handia du horretan inspirazioa kanpoko zernahitik datorrela uste dutenekin. Musa edo goi-arnasa zuten antzinakoek inspirazioaren iturri; Abendats —Abendaren hatsa— Salvatore Mitxelenak:

Ez naiz ni. Abendatsek  
Diardu ni baitan.  
Artxek jartzen dit Miña  
Blotz ezpañetan

Salvatore Mitxelena bera zen horrelakoa, sentimenduak muturreraino bizi zituena eta, sentimenduok adierazterakoan ere, puri-purrian, hau da, muturrerainoko izaera biluzian, adieraztea gustatzen zitzaiona. Ez zen epel zale; inor mintzeko beldurraren gainetik jartzen zuen egiazat zuena; gartsua zuen bihotza, bizia mingaina. Garai oso txarrak ziren halako gizon batentzat: sinismenari dagokionez, fedeari eutsi nahi zion, baina mundu gaizki egin batek eusgarri horiek ukatzen zizkion; elizaren babesa bizi nahi zuen, baina euskara eta Euskal Herria suntsitu nahi zutenekin batuta ikusten zuen eliza ofiziala... Gizakiari dagokionean ere, bizitzen eta ikusten ari zenak (analar-

---

(6) Latz sufritu behar duk: Gutxi gorabehera nik neuk nituenak, Salvatore Mitxelenak gure etxera egin zituen bisita batean. Ni zerbait idazten ari nintzela ikusirik —bazuen nire zaletasunen berr—, "latz sufritu behar duk" esan zidan, idaztea eta sufrimendua batera doazen bi egitate ballra bezala.

teko gerra, bigarren mundu gerratea...) ez zion kriskitineterako aukera handirik ematen.

Erants diezalogun horri guztiari bere poesiarekin zerikusi zuzena duen alde praktikoa bat, bere fraide bizitzan toki berezia bete zuen sermolaria lana. Hizlari paregabea zen Salvatore Mitxelena eta Euskal Herriko bazterrik bazter ibilli zen misioak ematen, hau da, oratoria gihartsu batez jendearen sentimenduak eragiten, leherrarazten, gainezkatzen. Ondo ezagutzen zituen oratoriaren betebeharrak, pulpitan ikasia zuen nola hunkitu behar diren entzuleen bihotzak. Mitxelena ofizioz zekien ethos baten aldarrikapenak baino askoz ere indar handiagoa duela pathos baten agerpenak inor kikitzeke orduan. Ez zeukan, bada, imintzioetan ibilli beharrik, abantaila baitzeukan, abantaila deitu al baliteke, zeregin horretan: pathos oinazetsuaz gainezka zeukan barrena, pathos oinazetuaren frogaz gainezka zeuden euskal bazterrak. Haatik guztiagatik, ez da harriztekoa pulpitzuz pulpitu zebilen baten jarduerak haren poesian ere itzala izatea.

Salvatore Mitxelenaren poesian asko dago interpelaziotik; entzule bati bezala zuzentzen zala irakurleari ere. Ezer narratzen hasi orduko, berehala jotzen du bigarren pertsona batengana, berak bizi dituen emozioak bigarren pertsona horri ere transferitu nahi balizkio bezala. Modu naturalean ematen ditu saltoak, diskurtso poetikoa batere behartu gabe, interpelazioaren barneko interpelazioak ere tartekatzeraino, Lauaxetaren orolmenez idatzi zuen "Gorputz dago gudaria..." poeman ageri den bezala. Edo poemaren batasuna kolokan jartzeralnoko interpelazio desberdinen konbinaketa egiten du, "Itxaropena" poeman ageri den bezala.

Izaera psikologikoari eta sermolaritzak eragindakoari erantzen badlogu analarteko gerra baino lehen ere analen arteko eten politikoa garrantza bizi izana (famillian eta lagunartean liskar eta eten politikoa asko izandakoa zen Salvatore), nahiko osagarri baditugu hor poeta baten sentimendu tragikoa ulertzeko.

Hamasei urtekin ezagutu omen zuen Unamuno. Erriberrin (Olliten) ikasketak egiten ari zela irakurri omen zituen "La agonía del Cristianismo" eta "Del sentimiento trágico de la vida". "Unamuno ta abendats" sailoak ondo erakusten du zer nolako zehaztasunez eza-gutzen zuen Unamunoren obra eta inoiz inork aztertzeke da Unamunoren poesiak Salvatore Mitxelenarenean izandako eragina. Nola-nahi ere den, bien poetikak bien barne-biografiak dira, modu garrantz

batez eta hornidura apain-ederrik gabe eraikiak. Bien poemagintze-tan ageri dira interpelazio etengabeak; besteen testuen (Bibliakoak, herrikolak, tradiziokoak...) eraldaketak; oratoriarenak edo otoltzare-nak edo eliz-kantuenak diren ballabideak. Bien ezaugarria da esateko moduen dispersioa eta esan nahi denaren etengabeko batasuna uztartzea. Biek lortu nahi dute pentsamendua sentiaraztea eta senti-mendua pentsaraztea.

Unamunok esandakoari ("Ez jakintsu ta ez pentsalari; ni sentila-ri"), miresmenezko iruzkina egiten dio Salvatore Mitxelenak:

"Ta aitor bear: sentilari bezela, nolako bikañal! Zeñen angusti-duna! Nolako Jainko gose duna! Ortan bai, ortik bai, benetan erraldoi".

Salvatore Mitxelena bere buruaz ari dela dirudi "zeñen angusti-duna" dloenean.

## Bizi nahiaren poeta

1949. urtea *Arantzazu, euskal poema* Hegoaldean gerra ondo-ren argitaratutako lehendabiziko liburua da. Hainbatek traiziotzat ere hartu izan zuen bilera baten ondorioz ikusi zuen argia.<sup>7</sup>

Bi zati ditu 1949 urtean argitaratutako liburua: lehendabizi-koak, *Zeru-deia* du izena; bigarrenak, *Kalbario, Alborni, Arantzazu*. Ohikoa da hezurdura tematikoaren leitmotiva hemen ere: Euskal Herria bizitzen ari den bidearen eta Arantzazura lgotzen diren erro-mesen arteko paralelismo etengabe baten emaitza da liburua.

Liburuak, ordea, hirugarren zati bat ere bazuen, *Bizi nai* ize-nekoa.<sup>8</sup> Hura gabe atera zen, ordea, *Arantzazu, euskal poema*, Salvatore Mitxelenak gordean eduki baitzuen, zuhurtasunez eta ba-

---

(7) Gerra ondoko lehen liburua: Administrazio frankistako buruzagi ba-tek uda Zarautzen igarotzen zuela ballatuz, argitalpenerako baimena erregu-tu zioten, eta baita lortu ere, errejimenarekin konpontxo egina omen zegoen euskal idazle batek, Jose de Artetxek alegia, eta Patxi Unzurrunzaga argita-ratzalleak.

(8) Zugan bizi nai du: Bizi nai hori Ama Birjinaren kanta batetik hartuta-koa da (...baña zugandik alde / biotzak ezin du / zuregara djjoa / zugan bizi nahi du...)

daezpada, harik eta sei bat urte geroago *Euzko Gogo*a aldizkariak argitara eman zuen arte. Horrela argitu zuen Mitxelenak berak bere jokabidearen zergatia:

“Obe izango zan, bearbada, poemaren ill zati au l ta ll’kin argitara izan ba’litz. Jendearen gogoko izango zan, eta lozorroaren ernarrazgarri. Zer esanik ez, berriz, poemaren oro-tankerak asko irabaziko zula gainsoiñeko onekin.

“Artarako, banun gobernuaren edo gobernutar baten baimena. Baiña, damurik, ez nintzan ausartu. Gaia arriskatua zalakoz, esamesak eta agian salaketak ere sortu zitezke-la-ta, ez zitzaizdan zuzen iduritu baimen-mesedea egin zidanaren agintea ta uste ona kolokaraztea”.

Salbatore Mitxelenaren lan poetikoen gailurra izateaz gainera, bertan ageri da bere ibilbide poetikoaren giltza, olerkigintza eta oinazea uztartzen dituen, berriro ere guruzbidearen eta Euskal Herriko egoeraren arteko paralelismoa egiten duena:

“Bizi nahi du! Gaurregun Arantzazura erdaldunik gutxi doakizu, turista antzo ez ba’da. Ara digozen erromesak arrazaren ondakinak dituzu: nekazari, arrantzale, langille jende, ta olako ezandizkiak gelen bat. Ta, zer nai duzu?, oien aboan deadar orrek, BIZI NAI orrek, negargura eman izan dit neri, ta poemagille sentiaraz niñun...”

Negargura, oinaze, mindura horretan aurkitu behar da Salbatore Mitxelenaren iturri poetikoa. Ama hil zitzaizkion kantatutakoak (Zein ederra dan olerkaritza / biotzak min duanean (...)) Zein ederra dan olerkaritza / otowitz biurtzen danean) berdin-berdin balio du Mitxelenak jorratzen dituen ezain galetarako edo bere ekintza poetikoaren nondik norakoa ulertzeko.

Mindurak edertzen du poesia, eta mindura horren espresiolbide poetikoak otowitz tankeran du gailurra, Mitxelenaren ustetan, horrek bakarrik ematen dio argia etsipenari: *post taenebras spero lucem*, dio *Bizi nai* poemaren atarirako hautatzen duen alpuak.<sup>9</sup>

(9) *Post taenebras*: Joben liburitik hartutako “*Post taenebras spero lucem*” esaldia hautatu zuen Salbatore Mitxelenak “*Bizi nai*” zati horren atariko alpu gisa. Esaldi bera izenburu duen lpuin bat ageri da Bernardo

Abendats edo inspirazio-iturria alpatu dugu arestian. Otoitz tan-keran eraikitako poesiaz ere aritu gara etengabe. Mitxelenak, ordea, oso gutxi hitz egin eta idatzi zuen bere uste literarioez. Gorabehera estetikoel buruzko "Au eta ura" izeneko lan bat idazten ari omen zen, baina ez dugu horren arrastorik.<sup>10</sup> Nik ezagutzen dudan bere idelario poetikoari buruzko adierazpiderik garbiena "Bizi nai" testua- ren atarikoan ageri da eta, orrialde doi betetzen duen kontua izan arren, pista asko ematen dizkigu Salvatore Mitxelenaren pentsamen- du poetikoaz bezala euskara zer-nola erabiltzeaz ere:

«Zenbait estetika-liburuk dasalgute, gaurko ertigintzaren krisi eza- guna (musikan, margozketan, irudigintzan, elertian, zernaitan) teknika gelegiatatik dala, teknika gelegiak gotargia presatzen eta itotzen dulako dala. Ez teknika ta ez eze gabeko zenbait erti-ize- neko berrikeri aztu ezkerro, egi derizkiot baiña ez zuzen esana. Ez dago teknika gelegirik, bere jomugatik okertzen ez ba'da»

Horren segidan, Salvatore Mitxelenak leihoko kristalarekin konparatzen ditu bai teknika eta bai estiloa: gu eta ikusi nahi dugu- naren arteko kristala —teknika nahiz estiloa, alegia— ezin ikusiagoa eta hobe. Eta poetak jarraitzen du:

«Etxebarrutik kanpora begira gaudenean, tarteko daukagun leio- kristala badanik ere konturatzen ez ba'gera, ordun da leiarra bere eginkizunean jatorrena, oberena, miragarriena.»

«Ez esan, bada, gure jendeak teknika zaillik ez dula nai euskal-li- buruetan. Zailia ez-ezik, zailena, teknika gorena, eskatzen digu idazlariol: norgere burua zearo izkutatzeralñokoa (...). Ar zagon lege: ez nekeak eman irakurleari, balzik norberentzat artu idazle bakoitzak, hariketa gelegirik ez dun ori lortu arte, lanaren lanez eta abildadez.»

Iluntasuna eta sakontasuna, klarua eta arina gauza desberdinak

---

Atxagaren "Obabakoak" liburuan. Jose Manterolak izenburu horixe duen poema luze bat argitaratu zuen XIX mendean, "Euskal-herria" aldizka- rian.

(10) Au eta ura: Unamunoren "Contra esto y aquello" saloaren izenbu- rua gogorarazten du. Halaber, baita Txillardegiren "Huntaz eta hartaz" saloa- rena ere.

direla esan ostean, bere ideario poetikoa laburbiltzen duen paragrafo interesgarri bat eskaintzen digu:

«Gorendu, bai, ari dugunez gorendu ta jaso ta aberastu dezagula gure idazketa gaurko ertikera berriaren moldera ta maillara. Baina ez dezagula galdu Bilintx baten biotz-ixuri aratza, Otañoren unki-garrizko zer ura, bertsolarien berezko etorria ta gatza, lapurtarren edersena ta eufoni delako ori, Arrese-Beltiaren arnasa ta galda, ta, galiñera, galaren "piper" pixka edo delgarria. Bestela gure erria lengo maixu erdi-maillako oekin geldituko zaigu, aurrerapenik edo obemiñik gabe; edota, au makurrago, idazlarion buru-jimnasi biurri nabarmenari igesika, erdal liburuetara joango zaigu, badoakigunez, ejitotarren tipula billa... "Petierunt panem et non erat qui frangerent eis". Aitor zagun norgere errua, besteenak besteentzat utziz; eta auznar, Bidasoz onuntazkuok behintzat, Aleixandre'ren irakatsi ua, euskaldunontzat ezin obeto datorren akarra ta aolkua: "Erriarentzat idazten ez dun idazlea suizida bat da"»

Badakigu gutunen bidez sendotutako adiskidetasuna izan zutela Manuel Lekuonak eta Salvatore Mitxelenak. Gerra aurreko kontuak dira, Lekuonak "Literatura Oral Euskérica" argitaratu eta Salvatore Mitxelena lanarekin txundituta gelditu zenekoak. Manuel Lekuonak kontatzen digunez, "Auxe dek nere bidea, emendikan jo bear diagu", esan omen zuen Salvatore Mitxelenak. Eta Lekuonak eranstendu:

"Bi gauza ikasi zituen A. Salvatorek nere bi lan aletatik: erriaren estiloan egin bear zuala bere lana, erriaren estilo xumean... (onomatopelak eta guzti; kanta zaarraren erara; bertsolarien ari bizkorreran)... eta kantuz, kantagarri."

Gerra aurrekoek begientzat eta gustu estetizistarentzat egindako poesia zuten helburu (Lizardi: Biotz-begietan); belarriarentzat egina, bertsolari-sena falta ez zitzaion Salvatore Mitxelenak. Estetika lizardiarrari guztiz uko egin gabe ere, aurreko belaunaldiak bazterturiko poesia-molde herrikoiak birreskuratu zituen: katankubetako egoera hartan, aurrera-bideko berrikuntza baino premiazkogoa zuten irakurleek bidean nozitutako zaurien ukendua. Salvatore Mitxelenak ongien ezagutzen zuena eskaini zien: Jainkoari zuzendutako oihu lazgarria kantu bihurtzea. Zer egokiago, erabaki zuen Salvatore Mi-

txelenak, herriak zuzen eta aise ulertuko dituen bere betiko forma tradizionalen abaroan negar egitea baino?

Olerkiar baino, olerkaritzaz hitz egiten du Salvatore Mitxelenak, hitz egiten duen gutxietan. Lanbidez. Poesia lan baten fruitua da; baina, aldi berean, bukatzen ez den lana, berritu daitekeena. Hortik bere hainbat lanen bertsiio desberdinak eta moldaketak.

Bestalde, Mitxelena ez da ez testuak literarioegi eman zale, ezta idazle moduan ageri zale ere. Ez du poserik, ez dabil *status* poetiko baten bila. Gizon bat ageri da poemen atzean, literato bat baino. Bera poesiarentzat baino, bere zereginetarako du poesia.

## Hizkeraz hitz bi

Zabartzat jo izan da Salvatore Mitxelenaren hizkera literarioa. Oreakarik gabea da, behintzat. Bizia da, zorrotza, jasotzailearen bat-bateko erantzuna jaso nahi duena. Horretarako, oinarriko kontuak hausten ditu, hizkuntzaren beraren hainbat berezko elementu bortxatzeraino, lizardik ere egin zuen bezala. Bortitzak ditu hainbat kontrakzio eta bortitzak zenbait lotura, gaizki ikasitako gramatika baten ustezko itzalpean eginak eta herri usadiotik urruti daudenak asko eta asko.

Horren guztiaren oinarrian, hizkuntza bizia eta zorrotza lortu nahia dago, irakurlearekin bat-batean sintonizatuko duen hizkera bat osatzeko premia. Horrek badu alde onik, herriaren belarriak gozatu nahiak hizkera sarkorra eta musikaltasun handikoa baitakar bera-rekin. Aldi berean, ordea, hizkera idatziak behar dituen elementu guztien arteko koherentzia eta oreka falta ditu hutsune.

Etxekoa eta ikasia, biak joan-etorri natural-ustean ari dira Mitxelenaren hizkeran. Etxekoa, ikasiaren galbahetik pasatu gabe; ikasia, etxekoaren ispiluan jarri gabe. Nolabait esateko, bi-biak ezagutzen ditu Salvatore Mitxelenak, baina ez du bi-biak ezkontzen jakin izan. Bertsolari-sena nahi luke beretzat, baina gaiak ez ditu bertsolarien publikoarenak. Erraz zurrean nahi luke ibili, baina hori ez da posible gaiak errazak ez direnean. Hortik desoreka: goranahian ari denean —eta gehienetan ari da horrela—, erabaki duen hizkuntzak ematen ez. Dena den, prosaren zelai zabaletan dabilenean, nabarmenagoa du desoreka, olerkiaren malkarretan dabilenean baino. Badirudi poe-



siak prosak baino aiseago ezkututzen —mozorrotzen— dituela hizkeraren defizitak.<sup>11</sup>

Inork batasunaren premia ageri baldin badu, Salvatore Mitxelena da: lokalismo lokalistenak eta literatur forma jasoenak elkartzen ditu. Aise elkartzen du goi mailako esaldia arrunkeria batekin, pentsamendu sakona interpelazio kaletar batekin, kontrakzio bortitzena forma lexikal ezezagun batekin...

Narrasa, esango luke inork. Presaz idazten zuen. Ez zuen argitaratuko zioten itxaropenik eta, hala ere, presaka idazten zuen, barrua husteko premia zuelako, seguru asko.

Baina hori guztia horrela izanik ere, aitor dut euskal literaturan inor gutxi ezagutzen dudala hizkuntzari Salvatore Mitxelenak bezalako etekinak, txirbilak, ezpala ateratzeko orduan. Asmatzaille eta sortzaille aparta dugu Mitxelena hizkuntzak eman ditzakeen aukeren kontuan.

*Basillika xar* kontrasteak esaten duena ez dago ekonomia handiagoaz esaterik. *Edersena* asmatzen duenak, ederraren senaz gainera, badu hizkuntzarena ere. Bihotz *miñeritua* duenak ez dauka luzaz jardun beharrik bere bihotzeko zauriez. Nik neuk hitzaldi guztian esan ditudanekin baino zehatzago definitu zuen Salvatorek bere burua *eroetsi bat naiz* edo *angustiaduna* zela esan zuenean.

Gizon angustiadunak angustiaz bizi zuen idaztea bere ere, angustiarekin bizi zuen hizkuntzarekiko lehia. Aberriak min zionak bihotzean ere min zuen.

---

(11) Hizkera literarioa: prosa versus poesia: Oso gutxi aztertu den kontua da hizkuntzaren zuzentasuna prosan eta poesian. Poesiak, eta hipotesi mailan adierazten du, aiseago mozorrotzen ditu hizkera literario baten defizitak: ahuleziak direnak askotan bertute literario direla sinestarazteraino mozo-rotu ere.